

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2011ko apirilaren 27a. VIII. urtea. 2.215. zenbakia. www.tolosaldea.hitza.info

Iaz baino lau aldiz bisitari gehiago izan dira Tolosaldeko informazio guneetan

Bi mila bat pertsonak eskatu dute informazioa eskualdeko turismo puntuetan, hau da, Tolosako Trianguloan zein Santa Maria plazan, eta Larraitzen zabaldu duten gunean

Txindokiko Itzala Info puntuak bisitari ugari izan ditu, eta baita Tolosako Gorrotxategi Museoak eta Topic-ek ere; Bidegoiango Iriarte Jauregian ere «gustura» daude ◊4



Aste Santuan Tolosako Trianguloa plazan egon da bisitariel laguntzeko guneetako bat. A. IMAZ

Periko Alonso
Realeko jokalaria ohia

«Egun haiek oso politik izan ziren. Ilusio eta poza dira gehien balio duena»

Elkarrizketa ◊3

Leitzako Gazte Eguneko batukadan parte hartzeko aukera, zabalik

Oskar Estangak perkusioko 3 ikastaro eskainiko ditu maiatzaren 7tik 20ra bitarte Atekabeltz gaztetxean ◊6

Aizkolari txapelketako saio ugari izango dira igandera bitarte ◊7

Itsaso Gonzalez de Leiva Dinamizatzailea

«Denbora Bankua ilusioz egin behar da, poliki-poliki»

Larraulgo maiatzaren 8ko Truke Egunean ez dira objektuak bakarrik trukatu ◊5



Gonzalez de Leivak Aduna, Alkiza eta Larraul herrietan egiten du lan. E.M.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info
bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldea.hitza.info
www.leitzaldea.hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behean, atzea - 20400 Tolosa

beharezkoa da datu guztiak betetzea

•Izen-abizenak:	•NA:
•Lanbidea:	•Jaioteguna:
•Helbidea:	•Herria:
•P.K.:	•Tel.:
•Posta elektronikoa:	
•Kontu zenbakia:	<input type="text"/>



2009. urtean izan zen Araxesko azken mendi martxa. HITZA

Araxesko mendi martxa zirkuitu ofizialaren barruan izango da aurten

Maiatzaren 29an izango da iraupen luzeko ibilaldia, eta antolatzaileek zabaldu dute izen-emate epea

Itzea Urkizu

Araxesko X. mendi martxan parte hartzeko izen-emate epea zabaldu dute jada. Aurten, 20. aldiz ospatuko dute mendi ibilaldia, eta lehen aldiz, Euskal Mendi Federazioko iraupen luzeko zirkuitoaren barruan da Amaro Auzo Elkarteak datorren maiatzaren 29rako antolatutako mendi ibilaldia.

Mendizaleek burutu beharko

duten ibilbideak 42 kilometroko luzera izango du, eta, gutxi-gorabehera, 2.000 metroko desoreka dago bidean. Antolatzaileek 10 orduren bueltan mendi martxa bukatzea aurreikusi dute.

Araxes ibaiaren arroa zeharkatuko du arduradunek markatutako bideak: Amaro, Ollaun, Alto, Otsabio, Trikuharri bide, Naramendi, Illarazu, Zarateko lepoa, Azkarate, Atallo, Arribe, Santa Barbara, Gorriti, Musai, Merku, Ulizar, Uli, Gaztelu, Leaburu, Zazpi bideak eta Amaro.

Maiatzaren 29an, beraz, irteera Amaroztik izango da, goizeko 07:00etan. Janaria eta edaria hartzeko aukera ere izango da, antolatzaileei egokienak iruditu zaizkien ibilbideko puntuetan.

Izena aurrez eman daiteke mendi martxan parte hartzeko, www.zirkuitoa.com web orrian, maiatzaren 29ra bitarte. Era berean, irteera egunean bertan izena emateko aukera izango du nahi duenak.

Hogei urtez lanean

Amarozko Auzo Elkarteak bi urtez behin antolatutako ohi du mendi martxa, eta jada hogei urte daromatza jardun horretan.

Aurten, Amaro Guraso Elkartearen lekukoa hartu du Amaro Mendi Taldeak, eta azken hauek antolatuko dute guztia lehenengoz. Hau dela eta, Araxesko Mendi Martxa herri edo eskualde mailako ibilaldia izateko, Euskal Herriko mendizale guztientzako hitzordua izatera pasako da; Euskal Mendi Federazioko iraupen luzeko martxen zirkuitoan sartu da Araxesko X. Mendi Martxa. Antolatzaileek, sekula baino parte-hartzaile gehiago espero dituzte, beraz, ibilaldia zerranda ofizialean sartu baita.

Gipuzkoako Mendi Federazioko kide izateko aukera eskaintzen diete auzotarrei, eta bide beretik, mendi irteerak antolatzen dituzte. Amaro Mendi Taldeari buruzko informazio zabalagoa aurki daiteke <http://sites.google.com/site/amarozmendi> helbidean.

Pazko astean ere zineaz gozatzeko aukera izango da

Jatorrizko bertsioan izango da pelikula bat, eta komediak nahiz dramak ere ikusgai izango dira

I. Urkizu

Aste Santuetako oporraldiaren ondoren, zine programazio zabalagoa da Pazko asterako ere, Tolosan.

When you're strange jatorrizko bertsioan ikusi ahal izango da zine forumaren barruan, ostegunean. Pelikulak 60eko hamarkadako rockaren erreferenteetako

bat izan zen The Doors talde estatubatuarren historia kontatzen du.

Era berean, *The Fighter* filmak ere badu errealitatearekin loturik, izan ere, benetako istorio bat oinarri hartuz, boxeolari baten bizitzeko gora-beherak kontatzen ditu.

Los chicos están bien komedia sarituak, berriz, intseminazio artifizial bidez jaiotako neska-mutil batzuek beren aita ezagutzeko duten grina islatuko du.

Azkenik, polizia baten eta bere semearen abenturak izango dira nagusi, *Esta abuela es mi padre* pelikulan.

• tolosa@hitza.info

↓ Pazko asteko zine programazioa

APIRILAK 28

■ 19:15. Zine foruma. Pelikula jatorrizko bertsioan proiektatuko dute. *When you're strange* Leidor aretoan.

■ 21:45. Zine foruma. Pelikula jatorrizko bertsioan proiektatuko dute. *When you're strange* Leidor aretoan.

APIRILAK 29

■ 22:30. *The fighter* pelikula Leidor aretoan.

APIRILAK 30

■ 19:30. *Los chicos están bien*

komedia izango da Leidor aretoan.

■ 22:30. *The fighter* pelikula Leidor aretoan.

MAIATZAK 1

■ 17:00. *Esta abuela es mi padre* pelikula Leidor aretoan.

■ 19:30. *The fighter* pelikula Leidor aretoan.

■ 22:00. *Los chicos están bien* pelikula Leidor aretoan.

MAIATZAK 2

■ 20:30. Ikuslearen eguna. *Los chicos están bien* pelikula Leidor aretoan.

Tlsbat-en diru laguntza eskatzeko epea zabaldu dute

Gazterian, berdintasunean eta kultur jardueretan aritzen direnei begirako laguntzak dira

I. Urkizu

Tlsbat departamenduko diru laguntzen deialdia onartu dute, eta eskaerak egiteko epea maiatzaren 13ra bitarte zabaldu dute.

Eskaerak UDATE-n, Plaza Zaharreko seigarren zenbakian,

egin beharko dituzte interesa dutenek. Asteleheneetik ostiralera, goizez joan beharko da bertara, 08:00etatik 14:00etara.

Diru laguntzen helburua

Tolosako Udaleko Tlsbat departamentuak urtero ematen ditu eremu desberdinetan eragile moduan lanean aritzen direnentzako diru laguntzak; gazteen intereseko gaiak jorrazteko elkarrekin, berdintasuneko gaiak jorrazteko elkarrekin eta kultur ekintzak eta jarduerentzat izango dira laguntzak.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

II. Aiztondora! Elkartasun Eguna Zizurkil Goian egingo dute

Bailarako Senideak elkarteak antolatu du egun guztiko jaia apirilaren 30ean, larunbatean

Asier Imaz Zizurkil

Aiztondo bailarako Senideak elkarteak kideek II. Aiztondora! Elkartasun Eguna antolatu dute Zizurkil Goian, iaz Amasa-Villabonan egin bezala. Egun guztiko egitaraua aurkeztu dute.

↓ Egitaraua

APIRILAK 30, LARUNBATA

- **12:00etan.** Gazteen pilota partida Zizurkilgo Intxaur pilotalekuan.
- **13:00etan.** Herri kirolak plaza.
- **14:30ean.** Herri bazkaria plaza. Txartelak 20 eurotan aurrez salgai aurkitzen dira, Aduna, Asteasu, Larraul, Villabona eta Zizurkilgo ohiko lekuetan.

- **Ondoren.** Dispersioaren aurkako ekitaldia, eta senideei omenaldia.
- **17:00etan.** Haur jolasak plaza.
- **Ondoren.** Herria kantuz ekimena.
- **22:30ean.** Bertso saioa Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu, Sustrai Colina, Hodei Barroso, Unai Iturriaga eta Iker Zubeldiarenekin. Gai-jartzailea: Igotz Alkorita.

→ Laburrak

San Joan eguneko Bordon dantzarako entseguak

TOLOSA › Ohitura den bezala, aurtengoan ere San Joan egunean, ekainaren 24an, Bordon dantzariak Tolosako kaleetan barrena ikusiko ditugu dantzan, eta bertan parte hartzeko entseguak maiatzeko lehen ostegunean, hau da, 5ean hasiko dira Tolosako Usabal Kiroldegian. Antolatzaileek, Udaberri Dantza Taldeko kideek, herritar guztiak gonbidatu dituzte hurrengo hileko lehen ostegunean egingo den entsegura.

Kantu jirako entsegua ostiralera aldatu dute

TOLOSA › Datorren larunbatean, apirilak 30, hileko azken larunbata izaki kantu jira izango da, Tolosa Kantari ekimen taldeak antolatuta. Beti bezala, eguerdiko 12:00etan emango zaio hasiera ekimen herrikojari Tontokalen. Ondoren, Tolosako Alde Zaharreko kaleetatik barrena ibiliko dira euskal kantak abesten, musikarien laguntzarekin. Normalean osteguna izaten da entsegu eguna, baina aste honetako entsegua ostiraletan izango dela jakinarazi dute, hau da, hilaren 29ean 20:00etan, Tolosako Udala Musika Eskolan. Jakina den bezala, parte hartzea libre izango da.

Periko Alonso ◦ Realeko jokalaria ohia

Duela 30 urte ligak ihes egingo ziela pentsatu zuen tolosarrak. Pelikula hark ordea, amaiera zoriontsua izan zuen.

«Azkeneko unean horrela irabaztea... ezin da hitzekin azaldu»

Asier Imaz Tolosa

Realak bere lehen liga 1980-81eko denboraldian lortu zuen. Apirilaren 26a zen eta Zamorak, azken jardunaldiko partidaren azken segunduetan, berdinketaren gola lortu zuen, El Molinon futbol zelaietan. Puntu hark liga eman zion Realari, eta gertaera horrek atzo 30 urte bete zituen. Sporting de Gijon taldearen aurkako partida hartan egon zen Periko Alonso (1953, Tolosa).

Gaur (atzo) beste egunetan bezala esnatu al zara?

Hasieran ez. (Barreak)

Baina gero komunikabideetatik deika hasi zaizkizu eta...

Aurrez jakinaren gainean jarriak ginen. Hasieran egunari normal ekiten diozu baina gero gauzak gogoratzen hasten zara, pixkanaka.

Eta zer etorri zaizu burura, partida bera?

Ez. Egun haiek oro har: oso politak izan ziren. Jendearen poza eta ilusioa... hori da gehien balio duena.

Garaipena Tolosaldean eta Gipuzkoako osoan ospatu zela idatzita dago.

Eta horrela izan zen. Oso ongi os-

patu genuela gogoratzen dut. Itzulerako bidaia hura izugarria izan zen; egundokoa. Lehen esan bezala, jendeak zuen pozak balio zuen gehien.

Zamorak gola sartu zuenean, zer pentsatu zenuen?

Berritoren ere liga bazihola pentsatzen hasita nengo; nire buruari horrela esaten nion. Baina azkeneko momentuan horrela irabaztea... ezin da hitzekin azaldu, hori bizi egin beharra dago.

Zure kirol ibilbideko unerik politenetakoa izango zen, ezta?

Politena, zalantzarik gabe.

Talde hartako jokalarien artean harremana mantentzen al duzue?

Mantentzen dugu, nahiz eta gehiegitan ez elkartu. Gaur (atzo) adibidez, ETBra joatekoak gara eta taldeko lagunekin hor elkartu naiz.

30 urte igaro dira eta gauzak asko aldatu dira; Atotxa futbol zelaiak da horren adibide garbiena.

Atotxak bere giroa zuen, eta hori oso berezia zen. Baina gauzak aldatu egiten dira eta orain Anoeta dago. Badirudi aldaketa batzuk egitekotan direla, eta ea nola gelditzen den.

Egungo Real nahiko pattal dabil,



JON URBE

bigarren mailara jaisteko muga horretan.

Ez da erraza. Nire ustez denboraldi oso ona egiten ari dira eta seguru salbatuko gara. Merezi dute la ueste dut gainera, baina denak bezala, urduri gaude. Taldeek asko jokatu dute eta ongi dakiugu lehen eta bigarren mailaren arteko aldea zein den. Guk talde gaztea dugu, etorkizunekoak.

Garai hartako kasta faltan botatzen duenik ere bada.

Lopez Ufarte, Zamora... ez dut ueste kasta bakarrik zenik, teknika eta kastaren arteko nahasketa bat zen; oreka zegoen. Baina gauzak aldatu egin dira, gizartea aldatu den bezala, eta dena lotuta doa. Ez da kasta falta, futbola aldatu egin da eta kitto. Eta ahalik eta egokien, horretara moldatu beharra daukazu.

Zure semeak, Xabi Alonsok, partida garrantzitsua jokatu du asteazkenean Bartzelonaren aurka, Txapel-dunen Ligan. Nola aurkitzen da?

Egunero hitz egiten dut berarekin eta lasai ikusten dut. Nahiko ondo daude, baina Bartzelonaren

aurka jokatu dute, eta badakigu txiki horiek zer egiteko kapaz diren.

Horieta bai teknika hutsa.

Teknika, kasta eta... dena. Horiak osotasunean osoenak dira. (Barreak).

Iragarki laburrak

LANA

■ **Sukaldaria Villabonan.** Sukaldaria behar da eguneko menuak, kazuelak eta taberna batetako sukalde arduradun izateko. Euskara jakitea ezinbestekoa da, baita ere antzeko lanetan eskarmentua izatea. Bidali curriculumak, *villabona2011@gmail.com* helbidera.

Informazio gehiagorako, deitu 661 36 94 24 telefonora.

ALOKAIRUA

■ **Etxebizitza Iruran.** Etxebizitza alokatzeko moduan Iruran. Bil logela, 80 metro karratu eta garaje itxia aukeran. Interesatuak deitu 636 53 00 00 telefonoz zabaldu.

la laukoiztu egin dira bisitariak informazio puntuetan

Aste Santuen bost egunetan bi mila bisitari izan dira eskualdeko hiru guneetan, aurreko urtean baino ia lau aldiz gehiago

Larraitzen lehen aldiz izan da informazio puntua zabalik; 800 lagun pasa dira bertatik

Imanol Garcia

Bi mila bisitari izan dira turismo informazio puntuetan Aste Santuan, iaz baino ia lau aldiz gehiago. Hiru puntu izan dira zabalik: Tolosako Trianguloa plazan jarritakoa, Tolosako Santa Maria plazan Tolosaldea Tourrek duen bulegoa eta Larraitzen zabaldu dena. Iaz 548 bisitari izan ziren informazioa eskatu zutenak. Hain justu, lehenengo aldiz da garai honetan zabaldu dela Larraitzeko informazio puntua, eta bertatik 800 lagun pasa dira bost egun horietan.

Olatz Ilarregi Tolosaldea Tourreko arduradunak azaldu duenez, «datu oso onak dira. Aurreko urtean Larraitzeko informazio gunea ez zegoen irekita Aste Santuan, beraz handik pasatzen zirenak beste urteetan ez genituen kontatuta». Trianguloan gunea jartzeak eskuragarriago egiten duela dio Ilarregik. «Udan ere jarrigen eta askoz jende gehiago hurbiltzen da», gaineratzen du. «Halere, orokorrean, nahiz eta informazio gunera ez hurbildu, ikusten zen kalean ere bai jende pila zebilela».

Tolosako Trianguloan jarritakoa informazio puntu gehigarriak eta nola ez, Larraitzen kokatzen den Txindokiko Itzala Info puntuak «eragin oso garrantzitsua izan dute» informazio eske aritu diren bisitarien kopuruaren handitzean.

Tolosan, 1.200 lagun

Tolosara bertara 1.200 bisitari joan dira informazio puntuetara. Bisitarien gehiengoa Espainiatik, Herrialde Katalanetatik eta Galiziatik etorritakoa izan da, %37. Jarraian gipuzkoarrak izan dira gehien hurbildu direnak, %26; bertakoak %18 izan dira; EAekoak %14 eta %5 beste herrialdeetakoak.

Txindokiko Itzala Info gunean, berriz, 800 bisitari jaso dituzte. Bisitari gehienak gipuzkoarrak

izan dira, %77. Jarraian Espainiako, Herrialde Katalanetako eta Galiziako bisitariak, %11. Hauen artean, kataluniarren eta madrildarren kopurua azpimarratzen dituzte. Bertakoak %8 izan dira eta beste %4 EAekoak, konkretuki bizkaitarrak.

Informazio puntuetan izandako bisitariez gain, Tolosan bertan Gorrotxategi Museoa zabalik egon da eta 327 bisitari jaso dituzte. Horrez gain, Topic-eko museoan 337 bisitari izan dira. Kontuan izan behar da Gorrotxategi Museora sarrera dohainik izan dela.

Bestalde, Tolosako Alde Zaharrean eta Santa Maria elizan bisitari arduradunak azaldu duenez, «datu oso onak dira. Aurreko urtean Larraitzeko informazio gunea ez zegoen irekita Aste Santuan, beraz handik pasatzen zirenak beste urteetan ez genituen kontatuta».

Karakol Saltsa egitaraua

Aste Santuko Karakol Saltsa egitarau gastronomikoak Tolosara ere jendea erakarri duela diote eskualdeko turismo bulegotik: «Aipagarria izan da zuzenean sukaldaria den egunetan hurbildu den jende uholdea, pintxo dastatzeak, karameluak zuzenean egiten ikustea... Horrek guztiak mugimendua sortu du hirigunean eta hori beti da erakargarria bisitariarentzat».

Topic eta Larraitzeko Mariren Zuhaitzia nabarmendu dute Tolosaldea Tourretik: «Dudarik gabe, bultzada handia eman diote gure eskualdeari». Tolosan inauguratu berri den seinaletikaren laguntza ere azpimarratu dute: «Turistek bulegoa errazago aurkitu dute eta baita interes nabarmeneko plaza eta gune garrantzitsuenak ere».

EAetik kanpo etorri diren turistek igoera nabaritu da okupazio mailan, turismo bulegoak jasotako datuen arabera. Pazko Astelehena leku askotan jaieguna ez dela kontuan izanik, turista askok ostatua igandean utzi zuten. «Hori dela eta, lehenengo lau egunak kontuan izanik okupazioa landetxeetan ia %90ekoa izan da



Aste Santuko egunetan pintxoak banatu zituzten eskualdeko zenbait tabernak eta jatetxek Trianguloan. A. IMAZ



Motorzaleak ere izan dira Tolosaldean oporraldi honetan. A. IMAZ

eta hoteletan %95a», azaldu dute Tolosaldea Tourretik. Pentsioak izan dira okupazio tasa baxuena izan dutenak: %30.

«Produktu ezberdindua»

Bidegoianen dagoen Iriarte Jauregia hotelaren arduraduna, Iban Muñoa, gustura dago Aste Santuak eta inguruko egunek ematen ari direnarekin: «Lan oso polita egiten ari gara. Apirilaren erdian hasi ginen hotela betetzen. Astelehena arte beteta egon gara, eta ostegunetik aurrera asteburua arte ere gela guztiak hartuta ditugu. Guretzat hamabost eguneko denboraldi indartsua izaten ari da, eta gu alde horretatik oso pozik gaude».

Krisi ekonomikoak ez die hainbeste eragiten Iriarte Jauregikoari. Eskaintza ezberdindua dutela nabarmetzen du Muñoak: «Jendeak begiratzen du Gipuzkoa barreranean erreferentziako zer hotel dauden, eta gu izaten gara au-

keretako bat. Produktu ezberdindu hori gustukoa badute, etortzen dira. Horrek gure bidea egitea ekartzen digu».

Leku askotatik joaten dira Iriarte Jauregira. «Hasieratik nazioarte mailara irekita gaude eta, esaterako, Ipar Europatik, Ipar Amerikatik edo Australiatik etortzen dira bisitariak», dio Muñoak. Inguruko herrialdeetatik ere joaten dira, baita Kataluniatik eta Madriletik ere.

Bezeroek hotela Euskal Herria ezagutzeko gune bezala erabiltzen dutela dio Muñoak. «Gipuzkoaren erdi-erdian gaude. Gero Nafarroa bertan dago, Iruñea ordu betebera. Zenbat egun daudden eta bere asmoen arabera, mila aukera daude, eta guk ere aukera horiek promozionatzen ditugu». Turismo gastronomikoa ere nabarmetzen du Iriarte Jauregiko arduradunak: «Michelin izarrak dituzten jatetxeetara joaten dira, edo Euskal Herriko gastrono-

miak erakarritu. Egun batean Akelarren edo Arzakaren jaten dute, hurrengoan Mugaritzen eta beste egun batean Bizkaira joaten dira».

Hotelera joaten direnek «eguneroko gastu maila erdi-altua dute», dio Muñoak. Beste herrialdeetatik etortzen diren ikuspuntua gurearen ezberdina dela ere aipatzen du: «Orain gutxi izan dira bezero batzuk Tolosara jaitsi zirenak erosketak egitera, bertan bazkaldu zutenak, gero Iruñera joan zirenak erosketak egitera eta bisitatzera, eta Gasteizen afaldu ondoren hotelera iritsi zirenak. Beraientzat Euskal Herriko aparteko puntuen artean ez dago hainbesteko distantziarik».

Beste urteen «berdintsua»

Amasa-Villabonako Alustiza landetxeko Mari Jose Etxeberriak dioenez, «Aste Santuko bost egunetan beteta izan dugu. Aste Santuaren aurreko astean sartu-irtean izan dira. Orain libre gaude, eta asteburuari begira mugimendurik izango da. Madrildekoentzat maiztaren 2a jai eguna denez, izango dira bertako batzuk, baina beteta ez dugu izango».

Beste urtekoekin alderatuta, aurtengo oporraldia «berdintsua» izan da. Gehienak kataluniarrak etorri dira, valentziarrak, eta frantsesak ere izan dira. Egun hauetan izan direnek Donostia eta kostaldean ezagutzeko joera izan dute».

Bikoteak zein familiak izan dituzte Alustizan egun hauetan. Aste Santuko egunetan, esaterako, familia batek hartu du etxe guztia, elkarrekin oporrak igartzeko. Etxeberriak ez du sumatu eraginik aurten oporraldia apirilaren bukaeran izateagatik: «Gabon ondoan, zubi handirik izaten ez denez, lehenago edo beranduago izan, Aste Santuan jendeak ateratzeko gogoia izan ohi du».

«Behar ez duzuna ekarri, eta behar duzuna eramateko» aukera, azokan

Maitzaren 8an Larraulen egingo dute Lehen Truke Eguna; denboraren eta gaitasunaren trukerako, dirurik gabeko azoka izango da

10:00etatik 14:00etara goiz pasa polita prestatu dute Denboraren Bankukoek

Eneritz Maiz Larraul

Aiztondoko Denbora Bankuak, Lehenengo Truke Eguna antolatatu du, maiatzaren 8ko Larraulen. Alkiza, Aduna eta Larraulgo herritarrek antolatatu dute, Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitatearekin batera.

Truke Eguneko merkatua, gauzak, denbora eta gaitasunak trukatzeko izango da, dirurik gabeko azoka, hain zuzen ere. Egitasmo bitxia bezain praktikoa da. «Behar ez duzuna ekartzeko, eta behar duzuna eramateko aukera

izango da», antolatzaileen hitzetan. 10:00etatik 14:00etara izango da azoka, eta edozeinek parte har dezake. Egunean bertan, bakoitzak bere trasteak hartu, eta Larraulera eramane ditzake trukatzeko. Truke Egun honetara eramateko, etxean pilatu eta erabiltzen ez den edozein gauzak balio du: liburuak, jostailuak, arropa, etxetresna elektrikoak, janaria...

Bertan izateko, aurrez izena eman ahal da. Antolatzaileek, izena ematen dutenei, mahai bat jarriko diete, postua jarri ahal izate-



Denboraren Bankuko txekia da. Bakoitzak berea du. E. MAIZ

ko. Informazio gehiagorako edo izena emateko, Aiztondoko telefono zenbakira, 943 69 39 30, deitu behar da, edota aiztondokodenborabankua@gmail.com helbidera idatzi.

Euskal Herriko beste Denbora Bankuei ere gonbidapenak luzatu dizkiete, Larraulera etorri daite-

zen. Dagoeneko 12 mahai baieztatuta dituzte, eta gehiagorentzako tokia ere badute.

Bankua zabaldu nahian

Gauzez gain, bestelakoak ere trukatu daitezke. Eskaera handiena izaten ari dena, masajeak eman eta hartzearena da, izan ere, bitar-

tean, ingelesa praktikatzeko aukera dago, eta baita lagun berriak egiteko ere. Baratzeta eta loreak zaintzea, bidaiak antolatzea, ogia edo gazta egitea, informatika zein matematikak lantzea... ere posible izango da.

2009an sortu zenetik, hiru herriren artean eramane dute aurrera Aiztondoko Denbora Bankua. Aduna, Alkiza eta Larraulgo herritarrengana mugatu beharrean, atek zabaldu, eta inguruko herrietako bizilagunei dei egin nahi diete, Denbora Bankuko kide egiteko. Ez dute inongo mugarik jarriko. Egun egokia izango da maiatzaren 8koa. Merkatua izateaz gain, festa eguna izango da Larraulen ospatuko dutena tailer ezberdinetan parte hartzeko aukera ere izango delarik: xaboiak egitea, masajeak ematea, ... Gainera, ipuin kontalariak, hitzaldiak, denbora-bankuari buruzko informazioa, ... egongo da.

Itsaso Gonzalez de Leiva • Dinamizatzailea

«Norberaren isolamendua pixka bat bideratzea lortuko dugula uste dut»

E. Maiz

Itsaso Gonzalez de Leiva pasaitarra, Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateko dinamizatzailea da. Aduna, Alkiza eta Larraul herritarrekin egiten du lan, eta herritarrekin batera, Denboraren Bankuaren sortzaileetako bat bera izan da.

Orain Aiztondoko Lehen Truke Eguna antolatatu dute Larraulen.

Denboraren Bankuarekin lanean arizarete. Nondik sortu zen ideia?

2009. urteko apirilean hasi ginen guztia mugitzen. Krisi hotsak zirela eta, Vallecasen, 80ko hamarkadaren amaieran ezagutu nuen lagun batez oroitu nintzen. Ez naiz oso ondo gogoratzen, baina trukearekin lotutako gauzak zituen. Krisia, harremanak, ... burura etorri zitzaizkidan, eta Interneten begira hasi nintzen. Ermuako Auzopolisekin egin nuen topo, eta beraiekin harremanetan jarri nintzen.

Aiztondon sortzea bururatu zitzaizun orduan.

Bai. Ermua oso handia da, eta etorkin asko ditu. Baina era berean, auzolana etorri zitzaidan burura. Herri txiki hauetan egiten zen. Egia da, garai ezberdinak zirela orduan, baina zerbait egin



E. MAIZ

behar genuela garbi nuen. Hasteko, Larraul, Alkiza eta Aduna bilerak egiten hasi nintzen. Bage nekien, sortzen genuena, zerbait xumeago izango zela; hiru herriren artean, eta jende gutxiagorekin egina izango zen. Hiru herrietako liburategietan nago, eta gertutasun horrekin, jendearekin ahoz aho hitz egin nuen gaiaren inguruan.

Eta nola hartu dute herritarrek?

Batzuk hasieratik oso ondo hartu zuten ideia. Bilerak egitean be-

rriz, denetatik zegoen. Batek esaten zidan: «herrikoa naiz, herrian ditut gurasoak, anaia, ilobak, ... zertarako behar dut? Zer eskaini dezaket?». «Iturjin baten beharra izan dezakezu», erantzun nion. Eta herrian familiarik ez duenak, haurrak izatean, lagun beharra izan ohi du, eta hor egon daitezke beharra. Beste zentzu batean, adiskidetasuna, elkarbanatzea, ... Herri txiki hauetan, agian behar gutxiago dago, eta zailago da. Baina beste aldetik, etxean, behar

ez ditugun hainbat gauza ditugu pilatuta, eta horretarako Truke Eguna dago.

Beraz, edozer gauza izan daiteke.

Nik beti jartzen dudana adibidea bizkotxoarena da. Eta zergatik ez? Denon artean lagundu, denon artean gauzak egin, eta horrelako gauza txikiak ere baloratu. Bizitza errazten digutenak, eta pozten digutenak dira. Edota bakailaoa pil-pil erara izan daiteke. Gauza txikiak dira, baina zergatik ez aiton-amonekin paseatzea,

josteko lanak, diru laguntzen papera betetzea, ... mila gauza dade. Eta autoestimua ere lantzen da, ez gara konturatzen zein ahalmen ditugun.

Eta nola funtzionatzen du Denboraren Bankua?

Bankua, desorekarik ez egoteko da. Hogei txeki ditugu, eta eskaini edo hartu duguna, txekian bete bete ondoren, Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitatean aurkeztu behar duzu. Ez dago momentuz inongo desorekarik, baina gero eta lagun gehiago izatea espero dugu, eta ziur gaude hala izango garela! Eta orduan, desorekak sortu daitezke. Konturatu gara, errazagoa dela ematea, eskatzea baino. Gehiago kostatzen zaigu eskatzea. Eta bankuko arduradunak ikusten badu eman bai, baina ez duzula eskatzen, orka bilatzeko eskatu zaio lagun horri. Eta datu base bat dugu, eta beharren arabera, harremanetan jartzeko baliatzen dugu.

Nola ikusten duzu ekimena?

Horrelako gauza bat sortzeko lehenik eta behin sinetsi egin behar duzu. Eta ondoren, ilusioa izan behar duzu. Eta era berean, ez duzu presarik izan behar. Ez du eperik, eta poliki-poliki egin behar da. Eta nik ekimen honekin ilusioa daukat, eta uste dut, bizitzaren bakartasuna edo isolamendua pixka bat bideratzea lortuko dugula berriro. Orain bakoitza, bere kabuz eta bere aierera dabil, eta aurrera ahalik eta zuzenen begiratzen dugu. Horrela, aldamenetan gertatzen dena ez dugu ikusten, eta zerk ez digu minik ematen.

Perkusio tailerra eta batukada egingo dituzte Atekabeltz gaztetxean

Maiatzaren 7tik 20ra, 3 tailer egingo dituzte; eta ikasitako praktikan jarriko dute maiatzaren 28ko Gazte Egunean

Maier Ugartemendia Leitza

Maiatzaren 7an hasi, eta 20an amaituko da perkusio tailerra. Bertan ikasitakoak, Leitzako Kultur Asteko Gazte Egunean erakutsi ahal izango dituzte.

Antolatzaileak Leitzako Gazte Asanblada, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, eta Gozamenek Koordinadorak dira. Leitzako Gizarte Zerbitzuak Gazte Asanbladarekin harremanetan jarri ziren gazteei begira ekimenen bat antolatzeko. Gazte Asanbladako perkusio tailer bat egitea proposatu zieten. 2006ko irailean honelako tailer bat antolatua zuten Atekabeltz gaztetxeak, eta orduan «oso gustura» gelditu ziren. Ander Perurena, Atekabeltz gaztetxeak kidearen arabera, «jende asko» hurbildu omen zen. Herrian saltza «polita» sortu zelarik.

Guztira 3 ikastaro izango dira. Maiatzaren 7an eta 14an, 17:00etan. Eta 20an, berriz, 18:30ean. Entsegu guztiak dohai-nik izango dira, Atekabeltz gaztetxearen barrualdean edo kanpoaldean egingo dituzte entseguak. 2-3 ordu inguruko iraupena izango dute. Ikastaroa Oskar Estangak emango du. Instrumentuak eta beharrezko material guztiak berak eramango dutelarik.

Batukada gazte egunean

3 entsegu hauetan ikasitakoak praktikan jarriko dute, kalejira baten bitartez, Kultur Asteko Gazte Egunean. Hau da, maiatza-



2006ko ikastaroan bezala, Oskar Estangak emango du ikastaroa. J.ASTIBIA

ren 28an. Horregatik, antolatzaileen ustez, komeni da 3 entseguetatik gutxienez bitara joatea, egunean bertan joko diren abestiak ondo ikasteko. Gainera, honela, lehenengo egunean probatutako instrumentuarekin gustura ez dagoenak, beste instrumenturen bat probatzeko aukera ere izango du.

Hala ere, hau ez da izango gazte egunean egongo den ekitaldi bakarra. Egun osoko festa izango baita. Hasiera gaztetxean egingo den bazkariarekin emango diote.



Kartela. HITZA

Amaitutakoan, batukadarekin kalejiran aterako dira Atekabeltzetik, eta plazaraino kalejiran joango dira. Handik, berriz ere, gaztetxera itzuliko dira, 21:00ak inguruan. Bertan luntxa egin ondoren, kontzertuez gozatzeko aukera izango da. Bi taldek joko dute: Hidro eta Vomito. Hidro Leitzako talde sortu berria da, eta beraien lehenengo kontzertua herrian bertan eskainiko dute. Vomito, berriz, 80ko eta 90eko hamarkadako taldea da. Orain gutxi zerbait kontzertu eskaintzeko elkartu dira, eta kontzertu horietako Leitza eskainiko dute.

Ikastaro irekiak

Perurenak herritar guztiei parte hartzeko gonbitea egiten diete, «gazte, nahiz ume». «Ilusioa egiten dion, eta gai ikusten den edozeini» zuzenduta daude ikastaroak. Bere hitzetan «ez da batere konplexua», «aise dominatzeko tailer bat da».

Oinarrizkoak diren 4 kanta prestatuko dituzte, gero kalejira jo ahal izateko. Ausartzen ez direnei «lasai» agertzeko esaten die Perurenak, ez dutela arazorik edukiko tailer horretan parte hartzeko.

Irunberritik Leireko monasteriora joanen dira Mendibil Taldekoak

Ibilaldia larunbat honetan izanen da; 07:30ean plazatik abiatu eta 17:30ak aldera itzuliko dira

M.U. Leitza

Asteburu honetan apirileko irteeraren eginen du Mendibil Mendi Taldeak. Irunberritik (440m) abiatu, Arangoitira (1356m) igo, eta Leireko monasteriora (770m) iritsiko

dira, azkenik. Ibilaldia hilaren 30ean, larunbatean izanen da. 07:30ean abiatuko dira plazatik. Eta, 5-6 ordu inguruko txangoa egin ondoren, 17:30ak aldera itzuliko dira. Nahikoa jende elkartuz gero, autobusez joanen dira.

Izena emateko epea bihar amaituko da, eta izena eman nahi duenak Astiz edo Maimur liburudendan, edo mendibilaurre-ra@hotmail.com helbidean egin dezake. Natura eta kirola lotuz egun ederria igaroko dute.

Basurde Elkarteak XIX. mendi martxa antolatu du

Maiatzaren 15ean izango da aurtengo ibilaldi neurtua; mendizaleak 07:00etan abiatuko dira plazatik

M.U. Berastegi

19. urtez jarraian mendi martxa antolatu du Berastegiko Basurde Elkarteak. XIX. ibilaldi neurtua, maiatzaren 15ean izango da. Urtero herritar eta kanpotar askok parte hartzen dute ibilaldi honetan. Iaz, esate baterako, 132 mendizale helduk eta 46 haurrek parte hartu zuten.

Urtero ibilbide ezberdina antolatzen dute elkartekok, eta aurtenean ere ibilbide ezberdin bat eza-gutu ahal izango dute mendizaleek. Leitzarango antzinako bide

eta bidezidorrak zeharkatuko dituzte. Garai bateko olazar, sarobe, eta Neolitikoa Aroko harrespil eta dolmenak ikusiko dituzte bidean. Lehengo urtean egun euritsuua eta hotza egin zuenez, ezin izan zuten Berastegiko puntu altuena-tatik paisaiaz guztiz gozatu. Beraz, aurtengo eguraldi hobea egitea espero dute.

Mendizaleak 07:00ak aldera abiatuko dira Berastegiko plazatik, eta ibilaldia egin ondoren, amaitzeko ere bertara joan behar dute. Parte-hartzaileek ibilaldian zehar jarriko diren kontroletatik pasa behar dute derrigorrez. Ibilaldian zehar zerbitzu eremuak ere egongo dira.

Izena ibilaldiaren abiapuntuan bertan emango da, hau da, herriko plazan. 6 euro ordaindu behar dute ibilaldian parte hartu ahal izateko.



Izen ematea plazan bertan egin ahal izango da. SARA GOMEZ

→ Laburrak

Usabal kiroldegiak zabalik jarraituko du igandetan

TOLOSA Usabal kiroldegiak zerbitzuak igande arratsaldean zabalik mantentzeko epea luzatuko dela adierazi du. Hori dela eta ekainaren 12ra bitarteko igandetan, Usabaleko instalazioak zabalik egongo dira egun osoan.

Leitzako udalbatzaren bilkura izanen da, gaur

LEITZA Gaur, 21:00etan Udalbatzaren bilkura izanen da Batzar Aretuan. Amazabal auzoko zoladura eta sareak moldatzeko proiektua eta finantziario plana onartzea, 2010. urteko Kontu Orokorren ospena, ANIMSA elkartearen Batzar Orokorreko udal ordezkarien izendapena, eta hauteskunde-mahaia osatzeko zozketa izanen dira gai zerrendan, besteak beste.

Erretiratuen eguna ospatuko dute Leitza

LEITZA Igande honetan, Leitzako erretiratu guztien eguna izanen da. 11:00etan meza nagusira joanen dira, eta aurtengo hildako kideen arimengatik eskatuko dute. 13:30ean bazkaria egingen dute Landa jatetxean. Bazkal ondoren, 85 urte aurtetik betetzen dituztenei, eta urrezko eztaiak ospatzen dituen bikoteari oroiarri bat emanen diete. Ondoren, musika izanen da.

Leitzarrak banakako aizkolari txapelketan

Zabaleta gaur izango da Lazkaon; Rekondo bihar, Armentian; eta Saralegi larunbatean Urduñan

R.C. Leitzza

Gaurtik igandera bitarte Eusko Label banakako aizkolari txapelketako saioak izango dira urrezko mailan, zein 23, 19 eta 15 urte azpikoetan. 15 urte azpikoetan Leitzako Mikel Zabaleta ariko da, eta Eneko Saralegi herrikidea urrezko mailan izango da.

Lehen saioa gaur bertan izango da Lazkaon. 13:00etan hasita lehenik eta behin, urrezko mailako aizkolarien txanda izango da. Iñaki Azurmendi, Antonio Senosiain I.a eta Ugaitz Mugertza II.a ariko dira jokoan izango diren bi plazen bila. Bietatik lehena B taldean ariko da bihar Armentian sailkatzen direnekin batera, eta bigarrena, A taldean ariko da Donato Larretxearekin eta Jose Mari Olasagastirekin batera.

15 urte azpikoetan Leitzako Mikel Zabaleta ariko da Eloi Kortxero eta Iker Vicenterekin batera. Hauek ere bi plaza izango dituzte jokoan.

Bihar, aipatu moduan, Armentian izango da saioa 12:30etik aurrera. Aurre-faseko bigarren finala jokatu dute Juan Jose Lopez Azpilikuetak, Aitzol Atutxa II.ak eta Jon Rekondo leitzarrak. Hauek ere ligako fasera igarotzeko azken bi plazak izango dituzte jokoan.

Larunbatean Urduñan 19 urte azpikoetan saioa izango da 19:00eta-



Zabaletak Adaniako 14 urte azpiko txapela jantzi zuen martxoan. S. GOMEZ

tik aurrera. Mikel Ussia, Gaizka Lopez eta Eneko Saralegi leitzarrak igandeko saiorako bi plazak izango dituzte jokoan.

Bukatzeko igandean Zumaian 12:30etik aurrera Donato Larretxeak eta Jose Mari Olasagastik urrezko mailako lehen puntuak lortu ditzazkete. Ondoren, 23 urte azpikoetan Aratz Mugertza III.a, Aritz Irazabal eta Eloi Kortxero ariko dira.

Igandeko emaitzak

Igandean Beran izan zen saioa, bai urrezko mailan, eta baita 15 urte azpikoetan ere. Urrezko mai-

lan Leitzako Jon Rekondo eta Ruben Saralegi aritu ziren, Oihan Larretxea, Antonio Senosiain eta Jon Rodrigezeekin batera. Lehia biziaren ondotik Rekondo, Senosiain, Larretxea eta Saralegi sailkatu ziren.

15 urte azpikoetan aldiz, Mikel Zabaleta leitzarra, Joxan Etxeberria eta Iker Vicente izan ziren. Lehen enborrean Zabaletak Etxeberria II.ari irabazi zion, baina Vicentek leitzarrari aurrea hartu zion ondoren.

Azken enborra izan zen lehia, hala ere, Vicentek irabazi zuen azkenean.

Ostiralean hasiko da Herriarteko Txapelketa, Villabonan

Larunbatean ere eskuzko partida izango da: Berrobi Bidegoianen aurka; zesta puntan Tolosa ariko da

R.C.

Ostiralean hasiko dira Gipuzkoako Herriarteko Txapelketako eskuzko partidak. Paletan ez da eskualdeko ordezkariarik izango, baina zesta puntan Tolosa ariko da, Zumaia, Donostia eta Mutrikuarekin batera. Dena den, urteroko moduan, talde gehienak eskuz ariko dira. 22 herri ariko dira gutzira, horietako sei Tolosaldekoak direlarik: Alegia, Amasa-Villabona, Albiztur, Berrobi, Bidegoian eta Amezketa. Bidegoian bosgarren urtez ariko da txapelketan, «ilusio handiz» antolatzaileen hitzetan, «herriko gazteek eta Saiaz elkarrekin lagunduta». Udalak, dena den, bigarren urte laguntza ukatu du.

Aipatu moduan, eskuzko lehen partida ostiralean izango da; 19:00etan Behar Zana pilotalekuan Amasa-Villabona Astigarragaren aurka ariko da. Irabazten duenak Oiartzun izango du aurkari. Larunbatean, aldiz, Berrobi eta Bidegoianen txanda izango da, eta irabazten duenak Lasarteren kontrako partida izango du. Amezketa eta Albiztur ere lehia izango dute lehen fase honetan. Zesta puntari dagokionez, Tolosako lehen jardunaldia maiatzaren 8an izango da Mutrikuaren aurka.

→ Laburrak

Bengoetxea VI.ak Lasa izango du aurkari

LEITZA ▶ Arretxe II.ari 22-16 irabazi ostean, Aritz Lasa urretxuarrak Oinatz Bengoetxea leitzarra izango du aurkari final-zortzirenetan, Eibarren, igandean. Lasa txukun aritu zen partidaren. Arretxek sake ikaragarria du, baina 11 pilota huts egin da, ezinezkoa izan zen aurrea hartzea. Arretxek saketik sei tanto egin zituen, baina urretxuarrak zortzi tanto egin zituen segidan partida bereganatuz.

Barriolak hiru hilabete inguruko baja izango du

LEITZA ▶ Atzo egin zioten ezker eskumuturreko ebakuntza Abel Barriola pilotari leitzarrari. Barzelonako Dexeus ospitalean egin zion ebakuntza Xavier Mir medikuak. Ebakuntzaren emaitza ikusi bitarte, badirudi pilotariaren baja hiru bat hilabetea izango dela, eta ondorioz, udaren berriz ere frontoietan izan daiteke leitzarra. Azken honekin lau dira Barriolak izan dituen ebakuntzak kirol ibilbidetan; lehena 2005ean izan zen, eskuin eskuan, ondoren 2009an belauneko arazoak izan zituen eta bi aldiz egin zioten ebakuntza, ia urtebetez bajaran egon zelarik.

Aurrera Saiaz taldeak irabazi du infantil mailan

AMEZKETA ▶ Aurrera Saiaz taldeak irabazi du Gipuzkoako infantil mailako pilota txapelketa. Ander Urdapilleta, Oier Semperena eta Iñaki Elola pilotariek Ordiziako Txapagain taldeari irabaztea lortu zuten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

HILETAREN BALIOA Txina Inperiala

Funeraria Vascongada ere pertsonen dugu pertsona bakartzak bere neurriko hileta izan behar duela. Horregatik, aior horretan lider garenez, aukera ekonomiko gutxiak egokitzen diren Hileta Zerbitzu Packak eskaintzen ditugu gure kalitatearen bermearekin.

Bereskurazina da galdu duzuna, baina laguntza eskainiko dizugu dena erazagoa izan dadin.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900

www.funerariavascongada.com



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordeak: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Eskurari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:
Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketak, Anoeta, Areso, Belauntza, Berastegi, Elduain, Herrialdea, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Agurrak



Urte askoan!

Janire Gofii Balerdi (Armezketak).
Igandean 5 urte bete zituen. Zorionak eta muxu asko familia guztiaren partetik.



Urte askoan!

Goizeder (Villabona). 2 urte. Zorionak printzesa, Ormaiztegiko aitona-amonon eta osabaren partetik.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarteta, 1. 943 67 36 49.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarrren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Irudia HITZA Argazki Lehiaketa



ARGAZKI LEHIAKETAKO LEHEN IRUDIAK

Askok Pazko Astean jai badute ere, beste askorentzat bukatu dira jai egunak, eta orain, Aste Santuan bizitakoak oroitzeko unea da. Horretarako ateratako argazkien errepaso a egitea aproposa izan daiteke, eta XIII. HITZA Argazki Lehiaketa

ketaren bidez, oparia jasotzeko aukera ere bada. Argazkiak bidaltzeko azken eguna maiatzaren 13a izango da. Irudian, Blas Urkizuk Balarraindik Altzagaratera bidean ateratako argazkia ikusi daiteke. B.U.

Agenda

DEIALDIAK

- **Ibarra.** *Paperezko zirkoa* ipuin kontaketa saioa gaur, 17:00etan kultur etxean Apika taldearen eskutik.
- **Aduna.** Asvineneak antolatzen duen V. Poltsiko Lehiaketa-ko lehen gala ostiralean, apirilak 29, izango da 22:30etik aurrera Asvinenean bertan. Sei taldek parte hartuko dute: Permin Mañifikue, Edurne Agirrezabala, Viento en Pompa, Berastegiko Antzerki Taldea, Banarte eta Aldraka Antzerki Taldea. Epaimahaiak zein ikusleek hautaturiko bi talde pasako dira hurrengo fasera, hau ekainak 10 bitarte ostiralera izango da.
- **Tolosa.** San Joan eguneko Bordon dantzarien entseguak maiatzaren 5ean hasiko direla jakinarazi dute Udaberri dantza taldeko kideek. Entseguak Usabal Kiroldegian izango dira.
- **Tolosa.** Naturaldia jardunaldien barruan ostiraletik, apirilak 29, maiatzaren 8a bitarte kultur etxeko fatxadan GKO Galeriak eta BOX.A arte elkarteak jardunaldietarako egin duten kartela zintzilikatuko dute.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Naroa Armendarizen *Perla Pinturak* Aranburu jauregian maiatzaren 7a bitarte. Ordutegia honakoa da: 17:30etik 20:30era, jaiegunak eta astelehenak izan ezik.
- **Tolosa.** Jose Benito Ruizen *Giza izaera eta izadia* argazki erakusketak Aranburu jauregian Naturaldiaren barruan, ostiraletik maiatzaren 31 arte.
- **Alegia.** Karmele Pellejeroren lanak Jubilatuen taberna larunbata bitarte. Loreak, paisaiak eta marrazki bizidunak bildu ditu tolosarrak.



XIII. HITZA Aste Santuko argazki lehiaketa



Harpidedun bakoitzak argazki bakarra bidali dezake **argazkiak@hitza.info** helbidera
Argazkiak bidaltzeko azken eguna: maiatzak 13